Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko maiatzaren 29a, ostirala — 99 — Viernes, a 29 de mayo de 2026

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## GETARIAKO UDALA

*Iragarkia*

Udalbatzak, 2026ko maiatzaren 26an egindako ohiko bilkuran

ERABAKITZEN DU

*Lehena.* Getariako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren berrikuspenaren Aurrerapena formulatu eta izapidetzen ari dela eta, urtebeteko gehieneko epean, honako hauek etetea: ostatu- eta turismo-ostatu erabilerak ezartzeko, zabaltzeko, aldatzeko edo intentsifikatzeko mota guztietako udal hirigintza-onarpen, -baimen eta -lizentzien ematea, udalerri osoan.

*Bigarrena.* Etetearen xede diren erabilerak honako hauek direla zehaztea: Euskadiko Turismoaren uztailaren 28ko 13/2016 Legean eta hura garatzen duen araudian arautuko turismo-ostatu modalitate guztiak, besteak beste: hotel- establezimenduak eta antzekoak; apartamentu turistikoak; erabilera turistikoko etxebizitzak; etxebizitza partikularretako erabilera turistikoko logelak; aterpetxeak; nekazaritza-turismoko establezimenduak; landetxeak; kanpinak; eta etorkizunean araudi sektorialak aurreikus dezakeen izaera baliokideko edozein ostatu-modalitate.

*Hirugarrena.* Eteteak bereziki eragingo diela bizitegi-erabilerako eraikinetan kokatutako edo kokatu nahi diren erabilera horiei, bai beheko solairuetan, bai lehen solairuetan edo goiko solairuetan, baita lokal, bulego, etxebizitza edo eraikin-zati baten erabilera ostatu- edo turismo-ostatu erabilerara aldatzea dakarten jarduketei ere. Era berean, eteteak eragingo die plaza-kopurua, edukiera, unitate kopurua edo erabileraren intentsitatea handitzen duten jarduketei.

*Laugarrena.* Etetetik kanpo uztea, betiere hirigintza-araubide aplikagarria betetzen badute eta erabilera ez badute handitzen edo intentsifikatzen:

a) Lehendik behar bezala baimenduta eta inskribatuta dauden jardueren kontserbazio-, mantentze-, segurtasun-, irisgarritasun- edo energia-eraginkortasuneko obrak.

b) Bizitegi-erabilera arrunta berreskuratzeko edo indartzeko jarduketak.

c) Ostatu-erabilerarik ez dakarten obrak edo jarduerak; eta

d) Administrazio eskudunak larrialdi sozial, babes edo aldi baterako bizitegi-premia publikoei erantzuteko sustatutako zuzkidura- edo gizarte-izaerako ostatuak, betiere HAPOaren helburuekin bateragarriak badira. Eraberritze-obrak baimendu ahal izango dira gaur egun turismo-jardueretarako diren higiezinetan, baldin eta ostatu-plazak mantentzen edo murrizten badira.

*Bosgarrena.* Etetea erabaki hau hartzen den egunetik aurrera aplikatuko da, gehienez ere urtebeteko epean, eta, nolanahi ere, HAPOaren hasierako onespena ematen denean sortuko diren legezko ondorioei kalterik egin gabe. Epe hori igarotakoan edo HAPOaren hasierako onespena lehenago gertatuz gero, aplikatzekoa izango da indarrean dagoen legeriak ezartzen duen araubidea.

## AYUNTAMIENTO DE GETARIA

*Anuncio*

El Pleno de la Corporación en sesión ordinaria celebrada el día 26 de mayo de 2026

DECIDE

*Primero.* Suspender, en el plazo máximo de un año, en relación con la formulación y tramitación del Avance de la revisión del Plan General de Ordenación Urbana de Getaria, la concesión de toda clase de autorizaciones, autorizaciones y licencias urbanísticas municipales para la implantación, ampliación, modificación o intensificación de los usos de alojamiento y turismo en todo el término municipal.

*Segundo.* Determinar que los usos objeto de la suspensión son todas las modalidades de alojamiento turístico reguladas en la Ley 13/2016, de 28 de julio, de Turismo de Euskadi, y su normativa de desarrollo, entre las que se encuentran los establecimientos hoteleros y similares, los apartamentos turísticos, las viviendas para uso turístico, las habitaciones de viviendas particulares para uso turístico, los albergues, los establecimientos de agroturismo, las casas rurales, los campings y cualquier modalidad de alojamiento de naturaleza equivalente que en el futuro pueda prever la normativa sectorial.

*Tercero.* La suspensión afectará de forma especial a estos usos ubicados o que se pretendan ubicar en edificios de uso residencial, tanto en plantas bajas como en plantas primeras o altas, así como a las actuaciones que supongan el cambio de uso de un local, oficina, vivienda o parte del edificio a alojamiento o turismo. Asimismo, la suspensión afectará a aquellas actuaciones que incrementen el número de plazas, el aforo, el número de unidades o la intensidad de uso.

*Cuarto.* Excluir de la suspensión, siempre que cumplan con el régimen urbanístico aplicable y no incrementen o intensifiquen su uso:

a) Las obras de conservación, mantenimiento, seguridad, accesibilidad o eficiencia energética de actividades previamente autorizadas e inscritas.

b) Las actuaciones de recuperación o refuerzo del uso residencial ordinario.

c) Las obras o actividades que no impliquen uso hotelero; y

d) Los alojamientos de carácter dotacional o social promovidos por la Administración competente para atender emergencias sociales, protección o necesidades residenciales temporales públicas, siempre que sean compatibles con los fines del PGOU. Las obras de reforma podrán autorizarse en inmuebles destinados actualmente a actividades turísticas, siempre que se mantengan o reduzcan las plazas de alojamiento.

*Quinto.* La suspensión será de aplicación a partir de la fecha de adopción del presente acuerdo, en el plazo máximo de un año, sin perjuicio de los efectos legales que se deriven de la aprobación inicial del PGOU. Transcurrido dicho plazo o con anterioridad a la aprobación inicial del PGOU, será de aplicación el régimen que establezca la legislación vigente.

EK\CV GAO-I-2026-03578

*Seigarrena.* Etetea aplikatzea erabaki hau hartzeko unean izapidetzen ari diren eta oraindik ebazpen irmorik ez duten eskaerei, baldin eta aurreko apartatuetan zehaztutako erabilerak ezartzea, handitzea, aldatzea edo intentsifikatzea badakarte, betiere aplikatzekoa den araudiak aitortzen dituen eskubide eta bermeei kalterik egin gabe.

*Zazpigarrena.* Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, lurralde historikoan zabalkunde handienetakoa duen egunkari batean iragartzea eta Udalaren webgunean eta gardentasun-atarian jendaurrean jartzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 85.2 artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 69.1, 70 bis eta 70 ter artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako.

*Zortzigarrena.* Erabaki hau jakinaraztea eragin zuzena izan dezaketen pertsonei eta, bereziki, eteteak eragindako erabileretarako eskaerak izapidetzen ari direnei; eta jakinaraztea, hala badagokio, indarreko araudiak aurreikusten dituen ondare-erantzukizun edo kalte-ordain eskubideak baliatu ahal izango dituztela, legezko baldintzak betetzen direnean.

*Bederatzigarrena.* Hirigintza-zerbitzuei agintzea erabaki hau berehala txerta dezatela lizentzien eta hirigintza-kontsulten kudeaketan, eta HAPOaren idazketa-taldeari helaraz diezaiotela, ostatu- eta turismo-ostatu erabileren etorkizuneko araubidearen azterketan kontuan har dadin, etxebizitzarako eskubidea, merkatu tentsionatuaren egoera, hurbileko merkataritza, auzo-bizitza, zaintza-sareak, irisgarritasuna eta genero-berdintasuna integratuz.

*Hamargarrena.* Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da organo beraren aurrean hilabeteko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, aplikatzekoa den araudiaren arabera.

Era brean, espedientea aztertu ahal izango da Udal honetako Idazkaritzan, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:00etara, eta egoki iritzitako alegazioak egin ahal izango dira. Espedientea webgune honetan ere azter daiteke: www.getaria.eus.

Getaria, 2026ko maiatzaren 26a.—Haritz Alberdi Arrillaga, alkatea. (3578)

*Sexto.* Aplicar la suspensión a las solicitudes que se encuentren en tramitación en el momento de adoptar el presente acuerdo y que aún no hayan recaído resolución firme, que impliquen la implantación, ampliación, modificación o intensificación de los usos señalados en los apartados anteriores, sin perjuicio de los derechos y garantías reconocidos por la normativa aplicable.

*Séptimo.* Publicar el presente Acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, publicarlo en uno de los diarios de mayor circulación del Territorio Histórico y someterlo a información pública en la página web municipal y en el portal de transparencia, a los efectos previstos en el artículo 85.2 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo y en los artículos 69.1, 70 bis y 70 ter de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

*Octavo.* Notificar el presente acuerdo a las personas que puedan resultar afectadas directamente y, en particular, a las que estén tramitando solicitudes para los usos afectados por la suspensión, haciéndoles saber que, en su caso, podrán ejercer los derechos de responsabilidad patrimonial o indemnización previstos en la normativa vigente, cuando se cumplan los requisitos legales.

*Noveno.* Encomendar a los Servicios Urbanísticos la inmediata incorporación del presente Acuerdo a la gestión de licencias y consultas urbanísticas y su traslado al equipo redactor del PGOU para su consideración en el estudio del futuro régimen de los usos de alojamiento y alojamiento turístico, integrando el derecho a la vivienda, la situación del mercado tensionado, el comercio de proximidad, la vida vecinal, las redes de vigilancia, la accesibilidad y la igualdad de género.

*Décimo.* El presente Acuerdo pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante el mismo órgano en el plazo de un mes o directamente recurso contencioso-administrativo en los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su notificación o publicación, de acuerdo con la normativa aplicable.

Asimismo, se podrá examinar el expediente en la Secretaría de este Ayuntamiento, de lunes a viernes, de 09:00 a 13:00 horas, y se podrán realizar las alegaciones que se estimen oportunas. El expediente también puede examinarse en la página web www.getaria.eus.

Getaria, a 26 de mayo de 2026.—El alcalde, Haritz Alberdi Arrillaga. (3578)

EK\CV GAO-I-2026-03578